

7. ERANSKINA

Egoera

EGOERAK AZTERTU

Ariketa hau egiteko, lehenik eta behin, gelan, egoera bat kontatuko diet, eta ondoren, honekin jarraitzeko, galderak erantzungo ditugu.

1.zatia: (Ahoz)



Kaixo lagunok, Aitor naiz eta 10 urte ditut. Bilbon bizi naiz nire guraso eta arrebarekin, eta eskolara joatea gustatzen zaidan arren, ez naiz oso ona matematiketan, eta beraz, batzuetan asko urduritzen naiz matematika arloa dudanean. Oso irakasle ona dut, eta asko laguntzen dit. Horregatik, asko esfortzatzen naiz matematiketan trebeagoa izateko, matematikaria izatea gustatuko litzaidake eta.

Lehen esan dizuet arreba bat daukadala ezta? Lorena deitzen da, eta 9 urte ditu. Berari asko gustatzen zaio ingelesa eta oso ona da gainera, baina irakasleak bronka botatzen dio beti, eta etxera heltzen denean, ez da ezer esfortzatzen; etxeko lanak ez ditu egiten... Gogorik ez duela esaten du, eta nik ez dakit nola lagundu... Ideiarik bai?

- Zer gertatzen zaio Aitorri? Eta Lorenari?
- Non ikusten dut nire burua islatuta? Lorena edo Aitorren kasuan? Zergatik?
- Zer egingo nuke nik egoera horretan? Nola lagunduko zenioke Aitorri?
- Inoiz egon al zara egoera berdintsu batean? Noiz?